

## Hondakinen tratamendu-zentroak eraikitzea

### Bizkaiko Foru Aldundia



Proiektuaren xedea hondakinak tratatzeko zentroak eraikitzea da. Horien bitartez hondakinen zatiei balioa eman nahi zaie, isuritako hondakin primarioen kopurua murriztu nahi da, baita zabortegien bizi erabilgarria areagotu ere.

Proiektu hau EGEFekin batera finantzatu da eta hondakinak tratatzeko bi zentro eraiki dira: Artigasko zabortegian konpostatze-planta (Bizkaiko konpostegia) eta Arraiz mendian hondakinak mekanikoki eta biologikoki tratatzeko planta (TMB). Biak Bilbon daude.

Artigasen (Bilbo) kokatuta dagoen konpostatze-plantak (Bizkaiko Konpostegia) Bizkaiko kimaketetatik eta lorezaintzatik, baita hondakinen

Una manera de hacer Europa  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



Unión Europea

ekoizle handietatik (hala nola merkataritza-guneetatik) ere datorren zati organikoa tratatzen du. Plantak 14.000 m<sup>2</sup>-ko azalera du eta bertan prozesu-guneak eta bideak sartzen dira. Prozesuaren lehenengo fasea aire zabalean egiten da eta bigarren fasea, konposta ematen duena, estalpean.

Bestalde, Tratamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) planta Arraiz mendian dago eta hiri-hondakin solidoen tratamendu aurreko eta erabilera bereziko teknologiarik modernoena erabiltzen du. Hondakinen zati organikoari dagokionez, halako prozesuek sailkapen eta tratamendu mekanikoa nahiz tratamendu biologikoa konbinatzen dute. Bere helburu nagusia nahasita jasotzen diren hondakinetatik hondakin birziklagarrien ehuneko gehiena ateratzea da eta, aldi berean, hondakinaren zati organikoa inerte bihurtu nahi da, hau da, inpaktuak deuseztatu nahi dira, bai atmosferan (metanoa), baita zorupean (lixibiatuak) ere. Plantako prozesuak lau urrats ditu: hondakinak hartzea, mekanikoki tratatzea, lehortzea edo heltzea eta inerteak bereiztea.

Azpiegitura hauek oinarrizkoak dira Bizkaiak hondakin primarioen edo gordinen zero isurketaren helburu estrategikoa betetzeko. Izan ere, hori 2005-2016rako Bizkaiko Hiri Hondakinak Kudeatzeari buruzko II. Plan Integralean agertzen da.

Una manera de hacer Europa  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

